

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

402 zb.
www.getxo.eus

>> 2026ko Apirila

Udalekuak 2026



getxogazte

Dohainik



IZENA EMATEA:
Maiatzaren 4tik 17ra

Nabarmen^{tzekoak}

- > Udalekuak doakoak izango dira eta aurren 336 plaza eskainiko dituzte
- > Gazteentzako abalak lehen etxebizitza erosteko
- > Tirolinak Sopuerta Abenturan



Elikagaiak manipulatzeko eta CV egiteko tailerrak

Udaleko Gazteria Zerbitzuak 14 eta 30 urte bitarteko pertsonen zuzendutako doako bi ikastaro egingo ditu maiatzean.

Elikagaien manipulatzaileraren tailerra maiatzaren 7an (gaztelaniaz) eta 14an (euskaraz) izango da, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), 16:00etan. Amaitzean, ziurtagiri bat emango da.

Beste tailerra, Curriculum Vitae bat egiten ikasteko, hilaren 19an (euskaraz) eta 26an (gaztelaniaz) izango da, 17:00etan, Romo Kultur Etxean.

Informazioa: Gazte Bulegoa, Algortako Torre 3, 688 88 09 85 Whatsapean, 94 466 03 53 telefonoan, gaztebulegoa@getxo.eus helbidean eta [@GetxoGazte](https://www.getxo.eus) sare sozialetan.

ERAKUSTALDIA
Belaunaldiarteko salsa eta bachata
Belaunaldiarteko antzerki emanaldia
Gaztelekuko antzerki emanaldia

EXHIBICIÓN
Salsa y bachata intergeneracional
Teatro intergeneracional
Teatro Gazteleku

MAIATZAK 28 MAYO
RKE
19:00



TIROLINAK
Somera Aventura

Maiatzak 9 Mayo
9:30-16:00

INSKRIPZIOAK:
Algorta: 688.840.356
Romo: 635.706.526





BEKAK SARIAK

* **"Portugalete Uri Urena" komiki lehiaketa**, Udalak euskaraz edo gaztelaniaz deituta. Sariak 100 eta 1.700 euro bitartekoak dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko da. Informazio gehiago: santaclara@portugalete.org eta <https://labur.eus/f9hsz30a>

* **Botin Fundazioaren arte-beka**, sorkuntza artistikoaren arloko prestakuntza, ikerketa edo proiektuak egiteko. (Beka bat emango die 30 urtetik beherako artista espainiarrei). Iraupena: 9 hilabete. Diru kopurua: 23.000 euro. Informazioa: 34 942 22 60 72 zenbakian, becas@fundacionbotin.org eta <https://labur.eus/fxu879c0>

Romoko Gaztelekuaren programazioa

GureGune
gaztelekua

Maiatza

Hilak 3, igandea: ASANBLADA: EKAINAREN ETA UZTAILAREN PROGRAMAZIOA

Hilak 8, ostirala: SUKALDARITZA: TAKOAK

Hilak 9, larunbata: IRTEERA: SOPUERTA ABENTURA

Hilak 14, osteguna: SUKALDARITZA: FRUTA-BROTXETAK

Hilak 16, larunbata: IRTEERA: MULTIKIROLA HONDARTZAN

Hilak 17, igandea: ESKULANA: KANDELAK

Hilak 19, astearte: JOLASA: JUST DANCE

Hilak 23, larunbata: ESKULANA: AMETS-HARRAPATZAILEA

Hilak 27, asteazkena: IKUSKIZUNA: ANTZERKIA ETA DANTZA

Hilak 31, igandea: TXAPELKETA: FIFA

Algortako Gaztelekuaren programazioa

GauEgun
gaztelekua

Maiatza

Hilak 3, igandea: TAILERRA: ASANBLADA (UDAKO PROGRAMAKETA)

Hilak 6, 13 eta 20, asteazkenak: TAILERRA: ANTZERKIA

Hilak 8, ostirala: SUKALDARITZA: NATXOAK GAZTAREKIN

Hilak 9, larunbata: IRTEERA: TIROLINAK

Hilak 15, ostirala: ESKULANA: SLIME

Hilak 16, larunbata: IRTEERA: GAZTE JAIA (KIROL JOLASAK EREAGA HONDARTZAN)

Hilak 22, ostirala: SUKALDARITZA: MARRUBI BROTXETAK TXOKOLATEAREKIN

Hilak 23, larunbata: TAILERRA: BUZTINGINTZA

Hilak 27, asteazkena: TAILERRA: ANTZERKI OBRA FINALA (RKE)

Udalekuak doakoak izango dira eta aurten 336 plaza eskainiko dituzte

Udalekuek izena emateko epea zabaldu dute eta hori maiatzaren 4tik 17ra izango da; lehen aldiz doakoak izango dira eta 336 plaza eskainiko dituzte (2025ean baino 20 gehiago). 5 eta 12 urte bitarteko adingabeek (2014-2021 urteen artean jaiotakoek eta Getxon erroldatutakoek) eskuratu ahal izango dute plazetako bat.

Mihaela Jilavu Gazteriako zinegotziak adierazi duenez, "aurten oso urrats garrantzitsua eman go dugu, udalekuak erabat doan eskainiko baititugu. Neurri honek aukeren berdintasunarekin dugun konpromisoa indartzen du, Getxoko familia guztiak, beren egoera ekonomikoa edozein dela ere, udan kalitatezko hezkuntza eta aisialdi baliabide bat eskuratu ahal izatea bermatuz. Udalekuen helburua da haurrei gune segurua, aberasgarria eta inklusiboa eskaintzea, non funtsezko balioak sustatuko diren, hala nola lankidetzeta, elkartasuna, errespetua eta tolerantzia. Plaza kopurua handitzeak eta eskaintza doakoa izateak ere lana eta familia uztartzea errazteko dugun borondateari erantzuten diote, udalerriko familiei benetan lagunduz".



Lehenetik ostiralera: 08:00etan, 08:30ean edo 09:00etan. Irteteko ordua 14:00etan edo 17:00etan (bazkariarekin) izango da. Larunbat eta igandetan ez da zerbitzurik izango.

Izen-emateak: ahal dela online (<https://sede.getxo.eus/info.0>) edo aurrez aurre Herritarren Arretarako Bulegoetan.

Onartuen zerrendak maiatzaren 22an argitaratuko dituzte www.getxo.eus/gazteria helbidean

Informazio gehiago: Gaztebulegoan (688 88 09 85 zenbakian edo gaztebulegoa@getxo.eus emailan), astelehenean ostiralera 10:00etatik 14:00etara, eta astearte eta ostegunetan 17:00etatik 19:00etara.

Lekuak, txandak eta prezioak
Udalekuak uztailean egingo dira Geroa ikastola, Juan Bautista Zabala eta Romo ikastetxe publikoetan. Bi txanda egongo dira, bakoitza bi astekoa: ekainaren 29tik uztailearen 10era eta uztailearen 13tik 24ra. Txanda bakoitzean 4 txango egingo dituzte, astearte eta ostegunetan.

Aurten, familiak kontziliatzen laguntzeko, sartzeko ordutegia malgua izango da, aste-

Auzolandegiak

Hilaren 30era arte egongo da zabalik **Auzolandegiak 2026** Gazte Boluntarioen Auzolandegietan izena emateko epea. Eusko Jaurlaritzak udako hilabeteetarako antolatuta, bi eta lau aste bitarteko epean gizarte-proiektuak lan bat eskaintzen dute, beste jarduerak mota batzuekin konbinatuta.

Informazio gehiago: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/>

Gazteentzako abalak lehen etxebizitza erosteko

Lehen etxebizitza erosi nahi duten 18 eta 40 urte bitarteko gazteek Eusko Jaurlaritzaren abala dute horretarako, Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, Abanca eta ING erakundeekin sinatutako hitzarmenari esker. Hipoteka gisa izapidetzen da: eskatzaileek bankuari jakinarazi beharko diote Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren sarrera bermatzea nahi dutela; une horretan aztertuko du konpainiak baldintzak betetzen diren ala ez.

Abalak tasazioaren eta salerosketaren arteko gutxieneko balioaren %80tik %100era arte estaltzen du. Finantza-erakundeek edo bankuek emandako hipotekek normalean estaltzen ez duten % 20ko balioa da. Euskadin kokatutako higiezinak izan behar dute (berriak edo bigarren eskukoak), eta erosteko gehieneko prezioa 340.000 eurokoa izango da.

Beharrezkoa da Euskadin gutxienez azken bost urteetako bi bizitza eta urtean 50.400 euroko diru-sarrerak ez gainditzea eskatzaile bakarra izanez gero, edo 86.400 eurotik gorakoak bi badira.

Informazioa: <https://labur.eus/ykjrjfgt>

Ludotekarako izenematea

Maiatzaren 4tik 17ra zabalik egongo da Kukupraka Ludotekak udarako eta 2026/2027ko ikasturterako zerbitzuan parte hartu ahal izateko izena emateko epea, aisialdian modu dibertigarrian hezitzeko, euskararen erabilera sustatzearekin batera. Udako doako jarduerak ekainaren 22tik abuztuaren 28ra izango dira, Romo herri ikastetxean, aste bateko txan-

dan, 2015etik 2020ra bitartean jaiotako umeentzat. Bestalde, datorren ikasturtean, Areetako Eskoletako plazan egoitza duen ludotekaren txandak 5 eta 6 urtekoentzat astelehen, asteazken eta ostiraletan; 7 eta 9 urte bitartekoentzat astearte, ostegunetan eta ostiraletan, eta larunbatetan 10 eta 11 urtekoentzat izango dira. Informazioa: <https://labur.eus/11eqhf9q>



BIZIHABI, BELAUNALDIEN ARTEKO BIZIKIDETZA PROGRAMA

BIZIHABI PROGRAMA EZAGUTZEN DUZU? GELA BAT ALOKATU NAHI DUZU?

- 55 urte baino gehiago badituzu eta zure etxeko logela bat alokatu nahi baduzu
- 18 eta 35 urte bitartean badituzu eta logela bat behar baduzu

JARRI GUREKIN HARREMANETAN!

PROGRAMA DE CONVIVENCIA INTERGENERACIONAL BIZIHABI

¿CONOCES EL PROGRAMA BIZIHABI? ¿QUIERES ALQUILAR UNA HABITACIÓN?

- Si tienes más de 55 años y quieres alquilar una habitación de tu casa
- Si tienes entre 18 y 35 años y necesitas una habitación

¡CONTÁCTANOS!



944 58 08 77

contacto@bizihabi.eus

www.bizihabi.eus

